

Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa Sustatzeko foru diputatuaren FORU AGINDUA; honen bidez, zuzeneko dirulaguntza ematen zaio Bilbao Ostalaritza Goi Eskolari (Holding Hostelería SA) Bizkaiko ostalaritza-sektorerako online prestakuntza-programa bat sortzea finantzatzeko.

Bizkaiko Foru Aldundiko Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa Sustatzeko Sailak, Turismo Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, Bizkaian sektore turistikoa bultzatzea du helburu.

Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa Sustatzeko Sailaren 2024-2027 Dirulaguntzen Plan Estrategikoak honako helburu estrategiko hau ezartzen du: 04: Bizkaia turismo-destino jasangarri gisa sustatzen laguntzea foru-dirulaguntzen bidez, Bilbao Bizkaia 2030 Turismo Estrategia garatuz; 04.01. helburu espezifikoak: Bizkaian turismo-jarduera gidatzea; eta 04.01.02. jarduera: Turismo-sektorean proiektu publiko-pribatuak garatzea. Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorretan, urtero, horiek ordaintzeko behar diren kredituak esleitzen dira.

Turismo Zuzendaritza Nagusiaren helburua lurraldean turismoa sustatzea da, Bilbao Bizkaia 2030 Turismo Estrategia bultzatuz, horrela Lurraldea eta helmuga sustatuz eta modu orekatu eta iraunkorrean garatzen lagunduz, inpaktu sozioekonomikoa sortuz eta pertsonen esperientzia eta gogobetetasuna hobetuz, erakunde arteko lankidetzan eta publiko pribatuan oinarritutako gobernantzaren bidez.

ORDEN FORAL de la Diputada Foral de Transportes, Movilidad y Turismo por el que se concede una subvención directa a favor de la Escuela Superior de Hostelería de Bilbao (Holding Hostelería S.A) para financiar la creación de un programa formativo online para el sector hostelero de Bizkaia.

El Departamento de Transportes, Movilidad y Turismo de la Diputación Foral de Bizkaia, a través de la Dirección General de Turismo, tiene por misión el impulso del sector turístico en Bizkaia.

El Plan Estratégico de Subvenciones 2024-2027 del Departamento de Transportes, Movilidad y Turismo prevé el objetivo estratégico 04: Apoyar la promoción de Bizkaia como destino turístico sostenible a través de subvenciones forales en desarrollo de la Estrategia de Turismo Bilbao Bizkaia 2030; Objetivo específico 04.01.: Liderar la actividad turística en Bizkaia; y la actividad 04.01.02.: Desarrollo de proyectos público-privados en el sector turístico. En los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia se vienen consignando cada año los créditos precisos para hacerlas efectivas.

La Dirección General de Turismo tiene como objetivo la promoción del turismo en el territorio, impulsando la Estrategia de Turismo Bilbao Bizkaia 2030, promocionando el territorio y el destino, apoyando su desarrollo de forma equilibrada, generando impacto socioeconómico de forma sostenible y mejorando la experiencia y satisfacción de las personas mediante una gobernanza basada en la colaboración interinstitucional y público privada.





Turismo-produktuak garatzea eta sendotzea, eta produktu horien artean besteak beste lehentasunezkoak eta besteekiko zeharkakoak dira gastronomia eta identitatea, lurralde-oreka sustatzea, enpresa-lehiakortasunari laguntzea, ekosistema arduratsua garatzea eta talentua indartzea, betiere sektoreko profesionalen gaitasunak sendotuz, foru agindu honetan aipatzen den Bizkaiko ostalaritza-sektorerako online prestakuntza-programaren proiektuaren jarduera-ildoetako batzuk dira.

El desarrollo y consolidación de los productos turísticos, entre los que la gastronomía y la identidad figuran como productos prioritarios y transversales al resto, el fomento del equilibrio territorial, el apoyo a la competitividad empresarial, el desarrollo de un ecosistema responsable y el fortalecimiento del talento afianzando las capacidades de los y las profesionales del sector son algunas de las líneas de actuación en las que se enmarca el proyecto del programa formativo online para el sector hostelero de Bizkaia al que se refiere la presente orden foral.

Bilbao Ostalaritza Goi Eskola (Holding Hosteleria SA) 1991n sortu zenetik, ostalaritza, turismoa eta aisia osatzen duten jarduera ekonomikoetako profesionalak eta enpresaburuak prestatzera bideratutako irakaskuntza-ikastaroak antolatzen, zuzentzen eta ematen ditu, bai eta ostalaritzako eta jatetxeetako prestakuntza arautuan eta espezializazio-ikastaroak, lanbide-bizitzan zeharreko prestakuntza eta ostalaritzarekin eta sukaldaritzarekin lotutako enplegurako prestakuntza diseinatzeko eta ematen ere, besteak beste. Beraz, Bilbao Ostalaritza Goi Eskolak (Holding Hosteleria SA) turismoaren sektorea osatzen duten profesionalen kalitateko prestakuntzan eta birgaitzean duen esperientzia aitortzen da, eta, horrela, Bizkaiko Lurralde Historikoko eskualdeetako ostalaritza-establezimenduen kalitatea eta lehiakortasuna hobetzen laguntzen du.

La Escuela Superior de Hostelería de Bilbao (Holding Hosteleria SA) se dedica desde su fundación en 1991 a la organización, dirección e impartición de cursos de enseñanza orientados a la formación de profesionales y empresarios de las actividades económicas que integran la hostelería, el turismo y el ocio; así como a la formación reglada en hostelería y restauración y el diseño e impartición de cursos de especialización, formación a lo largo de la vida profesional y formación para el empleo relacionada con la hostelería y restauración, entre otras. Es, por tanto, reconocida la experiencia de la Escuela Superior de Hostelería de Bilbao (Holding Hosteleria SA) en la formación de calidad de los profesionales que integran el sector del turismo y la restauración, contribuyendo con ello a la mejora de la calidad y competitividad de los establecimientos hosteleros de las comarcas del Territorio Histórico de Bizkaia.

Sukaldaritza eta gastronomiako erdi-mailako prestakuntza arautuaren eskaintzaz gain, goi-mailako bi gradu eta espezializazio-ikastaroak ditu; kontua da Bilbao Ostalaritza Goi Eskolak Bilbao (Holding Hosteleria SA), enplegurako prestakuntza-jarduerak garatzen dituela eta hainbat ekimen garatzen dituela, hala nola, inguruko enpresentzako zerbitzuak, gaitasunak transmititzeko hainbat erakunderekin lankidetzan aritzea eta Michelin Gidaren Bib Gourmand bereizgarria duen La Escuela jatetxearen kudeaketa.

Además de la oferta de formación reglada con el Grado Medio en Cocina y Gastronomía, dos grados superiores y cursos de especialización, la Escuela Superior de Hostelería de Bilbao (Holding Hosteleria SA), desarrolla actividades de formación para el empleo y desarrolla iniciativas diversas entre las que se encuentran los servicios a empresas del entorno, colaboraciones con entidades diversas para transmisión de competencias y la gestión del restaurante La Escuela reconocido con el distintivo Bib Gourmand de la Guía Michelin.





Bilbao Ostalaritza Goi Eskolak (Holding Hosteleria SA), beraz, ikasleei ibilbide gastronomikoa garatzeko aukera ematen dieten baliabideak eta gaitasunak ditu, plataforma profesional gisa balioko diena, tradizioa eta berrikuntza uztartuz, eta sektoreko profesionalak eta enpresek euren proposamenak hobetu eta eguneratzen laguntzen dutenak, euren negozioen eta sektorearen lehiakortasun handiagoa azpimarratuz.

Ostalaritzako online prestakuntza funtsezkoa izan da talentuaren garapen profesionalerako. Prestakuntza-programa parte-hartzaile bakoitzaren beharrei erantzuteko diseinatu da, etengabeko hobekuntza bultzatuz eta, horrela, ostalaritzako profesional bakoitzaren erabilgarritasunera egokituz. Ostalaritza-sektoreko prestakuntzak eta, ondorioz, kalitatezko esperientzia gastronomiko bereizleak sortzeak 2030eko Turismo Estrategian zehaztutako helburuetako batzuk lortzeari erantzuten diote. Gainera, lehentasunezko bi produktu garatu eta finkatzen ditu (gastronomia eta identitatea), enpresa-sarearen lehiakortasuna hobetuz, ekosistema arduratsu bat garatuz eta talentua indartuz, sektoreko profesionalen gaitasunak sendotuz.

Zehatzago esanda proiektu honekin honako helburu hauek garatuko dira:

1.- Ostalaritza-sektoreko profesionalen gaitasunak indartzea eta finkatzea, talentua garatzea parte-hartzaile bakoitzaren erritmora egokitutako online prestakuntza teorikoaren bidez, ikaskuntza laburren, zuzenen eta lokal bakoitzaren beharretara egokitutako berehalako aplikazioaren bidez, Bizkaia bisitatzen duten turistaren esperientzia gastronomikoa hobetzeko, kalitatearen, jasangarritasunaren eta irisgarritasunaren aldeko apustua eginez.

La Escuela Superior de Hostelería de Bilbao (Holding Hosteleria SA) dispone por tanto de recursos y capacidades que permiten a sus estudiantes desarrollar una carrera gastronómica que les sirva como plataforma profesional, uniendo tradición e innovación y que contribuyen a que profesionales y empresas del sector mejoren y actualicen sus propuestas incidiendo en una mayor competitividad de sus negocios y del sector.

La formación online en el sector hostelero se ha revelado crucial para el desarrollo profesional de talento. El programa formativo se ha diseñado para responder a las necesidades de cada participante favoreciendo la mejora continua y adecuándose así a la disponibilidad de cada profesional hostelero. La formación en el sector hostelero y su consiguiente creación de experiencias gastronómicas diferenciadoras de calidad responde a la consecución de varios de los objetivos definidos en la Estrategia de Turismo 2030, además, desarrolla y consolida dos productos prioritarios (gastronomía e identidad), mejorando la competitividad del tejido empresarial, el desarrollo de un ecosistema responsable y el fortalecimiento del talento afianzando las capacidades de los y las profesionales del sector.

En concreto, con este proyecto se desarrollarán los siguientes objetivos:

1.- Fortalecer y afianzar las capacidades de las personas profesionales del sector hostelero, desarrollar talento a través de una formación teórica online adaptada al ritmo de cada participante mediante aprendizajes cortos, directos y de aplicación inmediata acorde a las necesidades de cada local para mejorar la experiencia gastronómica de los y las turistas que visitan Bizkaia apostando por la calidad, la sostenibilidad y la accesibilidad.





2.- Helmuga gastronomikoki hobetzea, Bizkaiko produktu eta ezaugarri bereizgarriei balioa emanaz, turisten esperientzia gastronomikoa aberastuz kalitatezko sukaldaritza-identitate baten bidez.

Proiektu honekin lortu nahi diren helburuak eta Bizkaiko Foru Aldundiak Bilbao Bizkaia 2030 Turismo Estrategian dituen ildo estrategikoak bat datoz. Estrategia hori jasagarritasunaren ikuspegitik eta GJHei egindako ekarpenarekin lerrokatuta dago, eta horrek justifikatzen du GJHk Bizkaiko Ostalaritza Goi Eskolari (Holding Hostelería SA) eman nahi dion laguntza aipatutako helburuak finantzatzeko, Bizkaiko ostalaritzako online prestakuntza-programaren elementu bultzatzaile gisa.

Honenbestez, Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa Sustatzeko Sailak beharrezkotzat jotzen du proiektu hau babestea. Hori dela eta, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 26.2 artikulua (20.2c) artikuluari dagokionez ezartzen duena dela bide, Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa Sustatzeko Sailak erabaki du laguntza berezi bat ematea, dirulaguntzak zuzenean emateko prozeduraren bidez.

Dirulaguntza honen xede den erakundeak berezitasun objektiboa du bere jardueraren eremuan. Ostalaritzako prestakuntza espezializatutako enpresa da, eta bere jardura ikuspegi integral batetik garatzen du, gaitasun teknikoa, laneratzea eta tokiko enpresa-sarearen behar espezifikoetara egokitzea uztartuz. Espezializazio horrek, bere ibilbide egiaztatuarekin eta aplikatzen duen metodologia propioarekin batera, posizio berezian kokatzen dute, eta sektoreko beste erakunde batzuek ez dute hori errepikatzen.

2.- Mejorar gastronómicamente el destino poniendo en valor los productos y atributos diferenciales de Bizkaia enriqueciendo la experiencia gastronómica de las personas turistas a través de una identidad culinaria de calidad.

La coincidencia entre los objetivos que se quieren conseguir con este proyecto y las líneas estratégicas de la Diputación Foral de Bizkaia en la Estrategia de Turismo Bilbao Bizkaia 2030, una estrategia en clave de sostenibilidad y alineada con la contribución a los ODS, justifican el apoyo que ésta quiere prestar a la Escuela Superior de Hostelería de Bizkaia (Holding Hostelería S.A.) para financiar los objetivos referidos, como elemento impulsor del programa formativo online para el sector hostelero de Bizkaia.

El Departamento de Transportes, Movilidad y Turismo cree necesario apoyar este proyecto. Por ello, en virtud de lo dispuesto por el artículo 26.2 en relación con el 20.2.c) de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el Régimen Jurídico General de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, el Departamento de Transportes, Movilidad y Turismo ha estimado conceder una ayuda singular mediante el procedimiento de concesión directa.

La entidad objeto de la presente subvención presenta una singularidad objetiva en su ámbito de actuación siendo una empresa especializada en formación en hostelería que desarrolla su actividad con un enfoque integral, combinando capacitación técnica, inserción laboral y adaptación a las necesidades específicas del tejido empresarial local. Esta especialización, junto con su trayectoria acreditada y la metodología propia que aplica, la sitúan en una posición diferenciada que no es replicada por otras entidades del sector.





Ondorioz, ez dago norgehiagoka eraginkorrik, merkatuan ez baitira identifikatzen espezializazioari, irismenari eta esku hartzeko gaitasunari dagokienez ezaugarri baliokideak dituzten beste erakunde batzuk. Inguruabar horrek justifikatzen du dirulaguntza zuzenean ematea, erakunde bakarra baita lortu nahi den interes publikoko objektua eskatutako eraginkortasun- eta kalitate-bermeekin gauzatzeko gai dena.

Beraz, Turismoko Zuzendaritza Nagusiak uste du proiektu hau ezin dela deialdi publiko baten xede izan, diruz lagundu beharreko jardueraren berezitasuna dela eta.

Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa Sustatzeko Sailaren arabera, azaldutako guztiak honako hauek egiaztatu ditu: proiektuaren izaera berezia eta salbuespenezkoa, proiektua babestea justifikatzen duten interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoiak, bai eta planteatzen diren helburuak lortzeko deialdi publiko bat ez erabiltzea ere.

Jarduera horiek garatzeko beharrezkoa da laurogeita bederatzi mila zazpiehun eta bost euro eta hirurogeita hamaika zentimoko (89.705,71 €) laguntza jasotzea eta, gutxienez, eta proiektu osoa justifikatu beharko da.

Bilbao Ostalaritza Goi Eskolaren (Holding Hostelería S.A) eta Foru Aldundiko Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa Sustatzeko Sailaren helburuak bat datozela ikusita, Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa Sustatzeko foru diputatuaren 2026ko uztailaren 14ko 383/2026 Foru Agindu bidez, bere ekimenez, Bilbao Ostalaritza Goi Eskolari (Holding Hostelería S.A) "Bizkaiaiko o stalaritza-sektorerako online prestakuntza-programa" proiekturako zuzeneko dirulaguntza emateko prozedura ofizios hastea erabaki zen, bere ekimenez.

En consecuencia, no existe concurrencia competitiva efectiva, dado que no se identifican en el mercado otras organizaciones con características equivalentes en cuanto a especialización, alcance y capacidad de intervención. Esta circunstancia justifica la concesión directa de la subvención, al ser la única entidad capaz de ejecutar el objeto de interés público perseguido con las garantías de eficacia y calidad requeridas.

Por tanto, la Dirección General de Turismo aprecia que este proyecto no puede ser objeto de una convocatoria pública dada la singularidad de la actividad a subvencionar.

El Departamento de Transportes, Movilidad y Turismo estima que lo expuesto acredita el carácter singular y la excepcionalidad del proyecto, las razones de interés público, social, económico o humanitario que justifican el apoyo al proyecto, así como la no utilización de una convocatoria pública para conseguir los objetivos que se plantean.

Para el desarrollo de estas actividades es necesaria la concesión de una ayuda de ochenta y nueve mil setecientos cinco euros con setenta y un céntimos (89.705,71 €), debiendo justificarse todo el proyecto.

Constatada la coincidencia entre los objetivos de la Escuela Superior de Hostelería de Bilbao (Holding Hostelería S.A.) y del Departamento de Transportes, Movilidad y Turismo de la Diputación Foral, mediante Orden Foral 383/2026, de 14 de julio de 2026, de la diputada foral del Departamento de Transportes, Movilidad y Turismo, se acordó iniciar de oficio, por propia iniciativa, el procedimiento para la concesión de una subvención directa a la Escuela Superior de Hostelería de Bizkaia (Holding Hostelería S.A.) para el proyecto "Programa formativo online para el sector hostelero de Bizkaia".





2026ko uztailaren 16an, erakunde onuradunak dirulaguntza eskaera bat aurkeztu zuen Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa Sustatzeko Sailaren Bulego Birtualean, "Bizkaiko ostalaritza-sektorerako online prestakuntza-programa" proiektua egiteko. Eskabidearekin batera, egin beharreko jardueraren deskribapena doa. Proiektu honen aurreikusitako kostua 89.705,71 eurokoa da eta hori gauzatzeko 89.705,71 euroko dirulaguntza eskatu zaio Bizkaiko Foru Aldundiari.

Foru agindu honetan ezarritako dirulaguntza estatuaren laguntza da, erakunde onuradunak jarduera ekonomiko bat egiten baitu, hau da, merkatu jakin batean ondasunak edo zerbitzuak eskaintzea moduan definitzen dena. Hala ere, salbuetsita daude Europako Batzordeari aldezturik jakinarazteko betebeharrak, Batzordearen 2023/2831 (EB) Erregelamenduaren arabera (2023ko abenduaren 13koa, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa).

Jarduerak 2026ko urtarrilaren 1etik 2026ko abenduaren 31ra egiten dira.

Bizkaiko Foru Aldundiak emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreal eta eraginkorraren aldeko konpromisoari eusten dio, eta, horregatik, jarduera guztiak genero-ikuspegia kontuan hartuta eta oraindik dauden desberdintasunak murrizteko neurriak finkatuta egiten dira.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauak emakumeen eta gizonen benetako berdintasunaren aldeko xedapen batzuk ezartzen ditu. Beraz, foru aginduaren eremuan garatzen diren jarduketek genero-ikuspegia hartu beharko dute kontuan. Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Foru Planak esparru estrategikoa eskaintzen du, Bizkaiko Foru Aldundiaren berdintasun-arloko politika publikoak garatzeko, 2025-2029 ekitaldietan.

Con fecha 16 de julio de 2026, la entidad beneficiaria presentó una solicitud de subvención en la Oficina Virtual del Departamento de Transportes, Movilidad y Turismo para el proyecto "Programa formativo online para el sector hostelero de Bizkaia". Adjunto a la solicitud incorpora la descripción de la actividad a realizar. El coste estimado de este proyecto es de 89.705,71 euros, solicitándose para su ejecución una subvención por ese mismo importe de 89.705,71 euros a la Diputación Foral de Bizkaia.

La subvención prevista en esta orden foral constituye ayuda de estado ya que la entidad beneficiaria ejerce una actividad económica, definida ésta como cualquier actividad consistente en ofrecer bienes o servicios en un determinado mercado. No obstante, están exceptuadas de la obligación de notificación previa a la Comisión Europea en virtud del Reglamento (UE) 2023/2831 de la Comisión, de 13 de diciembre de 2023, relativo a la aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea a las ayudas minimis.

Las actuaciones se realizan desde el 1 de enero de 2026 hasta el 31 de diciembre de 2026.

La Diputación Foral de Bizkaia mantiene su compromiso a favor de la igualdad real y efectiva entre mujeres y hombres y, por ello, todas las actuaciones se desarrollan teniendo en cuenta la perspectiva de género y fijando medidas tendentes a reducir las desigualdades aún existentes.

La Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la igualdad de mujeres y hombres establece disposiciones en favor de una efectiva igualdad de mujeres y hombres. En consecuencia, todas las actuaciones que se desarrollen en el marco de esta orden foral deberán tener en cuenta la perspectiva de género. El VII Plan Foral para la Igualdad de Mujeres y Hombres de Bizkaia ofrece el marco estratégico para el desarrollo de las políticas públicas en materia de igualdad de la Diputación Foral de Bizkaia durante los ejercicios 2025-2029.





Erakundeak betetzen ditu Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23.2 artikuluan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 46 c) eta d) artikuluetan ezarritako betebeharrak eta betekizunak.

Foru agindu honetan ez da generoaren arabera eraginaren aurretiazko ebaluazio-txostena egin, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 25.4. artikuluan ezarritakoaren arabera salbuetsita dagoelako.

Foru agindu egiteko, kontuan hartu da Bizkaiko Foru Aldundiaren, haren erakunde autonomoen eta foru-sektore publikoaren jardura-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dituen maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuan xedatutakoa.

Honako hauek osatuko dute zuzeneko dirulaguntza honi aplikatu behar zaion araubide juridikoa: foru agindu honetan jasotako xedapenak, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2008 Legean jasotako manuek, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauak, eta aurreko testu horiek guztiak garatzen dituzten arauzko xedapenak.

Bestalde, abenduaren 16ko 169/2014 Foru Dekretuaren bidez onartutako Aurrekontuen Erregelamendu Orokorren (dirulaguntzak edo laguntzak emateko, zenbatekoaren zioz, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Administrazioaren organoen eskumenen mugak ezarri dituen) bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, foru diputatuei dagokie 100.000 euroraino gainditzen ez diren dirulaguntzak ebatzea. Aipaturiko muga martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onartutako Dirulaguntzen Erregelamenduaren 12. Artikuluan ezarritakoarekin bat dator.

La entidad cumple con las obligaciones y requisitos establecidos en el artículo 23.2 del Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres; y el artículo 46 c) y d) de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

En esta orden foral no se ha llevado a cabo el Informe de Evaluación Previa de Impacto en Función del Género por estar exento de acuerdo con lo establecido en el artículo 25.4 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

En la elaboración de la orden foral se ha tenido en cuenta lo dispuesto en el Decreto Foral 63/2019, de 28 de mayo, por el que se establecen los criterios de uso de las lenguas oficiales en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia, de sus organismos autónomos y del sector público foral.

El régimen jurídico aplicable a la presente subvención directa estará constituido, además de por las disposiciones recogidas en la presente orden foral, por las prescripciones contenidas en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, por la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, que regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, y por las disposiciones de carácter reglamentario que desarrollan los textos anteriormente citados.

Por otro lado, de acuerdo con lo establecido en la Disposición Adicional Segunda del Reglamento General Presupuestario aprobado por Decreto Foral 169/2014, de 16 de diciembre, por la que se determinan los límites competenciales, por razón de la cuantía, de los órganos de la Administración Foral del Territorio Histórico de Bizkaia, para la concesión de subvenciones o ayudas, corresponde a los diputados o a las diputadas forales cuando la cuantía de las subvenciones o ayudas no superen los 100.000 euros. Dicho límite está en consonancia con lo dispuesto en el artículo 12 del Reglamento de Subvenciones, aprobado por Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo.





Horregatik guztiagatik, Foru Administrazioak emandako dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 9.2. artikuluan eta martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Dirulaguntzen Foru Arautegiaren 12. artikuluan ezarritakoa dela bide,

XEDATU DA

Lehenengoa.- Dirulaguntza ematea

1. Zuzeneko dirulaguntza ematea Bilbao Ostalaritza Goi Eskolari (Holding Hostelería S.A), IFK: A 48472526, laurogeita bederatzi mila zazpiehun eta bost euro eta hirurogeita hamaika zentimoko (89.705,71 €), Bizkaiko ostalaritza-sektorerako online prestakuntza-programa finantzatzeko, betiere foru agindu honetan jasotako baldintzak eta konpromisoak betez.
2. Laguntza hau zuzeneko adjudikazio-prozeduraren bidez ematen da, 5/2005 Foru Arauaren 20.2.c artikulua xedatutakoari jarraiki.
3. Dirulaguntza emateko baldintza suntsiarazlea izango da erakunde onuradunak baldintzak betetzea eta laguntza onartu aurretik onuraduna izateko debekurik ez izatea.

Bigarrena.- Erakunde onuraduna

1. Laguntzaren erakunde onuraduna Bilbao Ostalaritza Goi Eskolak (Holding Hostelería S.A) (A 48472526) da.
2. Onuradunak bete egiten ditu Bizkaiko Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide orokorra erregulatzeko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 12. artikuluan xedatutako betekizun guztiak, dirulaguntzaren onuradun izateko bete behar direnak.

Por todo ello, en virtud de lo establecido en el artículo 9.2 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, y en el artículo 12 del Reglamento Foral de Subvenciones aprobado por Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo,

SE DISPONE

Primero.- Concesión de la subvención

1. Conceder una subvención directa a la Escuela Superior de Hostelería de Bilbao (Holding Hostelería S.A), CIF A 48472526, por importe de ochenta y nueve mil setecientos cinco euros con setenta y un céntimos (89.705,71 €) para financiar el programa formativo online para el sector hostelero de Bizkaia, sometida a las condiciones y compromisos recogidos en esta orden foral.
2. La presente ayuda se otorga mediante procedimiento de adjudicación directa de acuerdo con el artículo 20.2.c de la Norma Foral 5/2005.
3. La concesión de la subvención queda sometida a la condición resolutoria de que la entidad beneficiaria cumpla los requisitos y no esté incurso en ninguna de las prohibiciones para adquirir tal condición en un momento anterior a la aceptación de la ayuda.

Segundo.- Entidad beneficiaria

1. La entidad beneficiaria de la ayuda es La Escuela Superior de Hostelería de Bilbao (Holding Hostelería S.A.) (A 48472526).
2. La beneficiaria cumple con los requisitos establecidos en el artículo 12 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral para tener la consideración de persona beneficiaria de la subvención.





3. 30.000 eurotik gorako dirulaguntzetarako, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legeari lotutako irabazi-asmoa duten eta zuzenbide publikoko erakundeak ez diren pertsona fisiko eta juridikoek egiaztatu beharko dute, paragrafo honetan xedatutakoaren arabera, aipatutako legean onuradun edo erakunde laguntzaile izateko ezartzen diren ordainketa-epeak betetzen dituztela.

Ezarritako betetze-maila egiaztatzeko, frogabide hauek erabiliko dira:

a) Kontabilitate-araudiaren arabera galdu-irabazien kontu laburtua aurkez dezaketen pertsona fisiko eta juridikoak, pertsona fisikoak izenpetutako ziurtagiriaren bidez, edo, pertsona juridikoen kasuan, administrazio-organoak edo nahikoa ordezkaritza-ahalmen duen baliokideak izenpetutako ziurtagiriaren bidez, abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako ordainketa-epeen betetze-maila lortzen dutela adieraziz.

b) Kontabilitate-araudiaren arabera galdu-irabazien kontu laburtua aurkeztu ezin duten pertsona juridikoak:

1. Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatutako auditoreak emandako ziurtagiria, ikuskatutako azken urteko kontuen memorian deskribatutako ordainketen arloko informazioaren transkripzio xehatua jasotzen duena.

2. Aurreko zenbakian aipatzen den ziurtagiria ematea ezinezkoa bada, «Adostutako Prozeduren Txostena», Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatutako auditore batek egina, zeinak, erreferentzia-data batean sozietatearen hornitzaileei ordaintzeke dauden fakturen lagin adierazgarri baten berrikuspenean oinarrituta, abenduaren 29ko 3/2004 Legearen ordainketa-epeak betetzeko salbuespenik antzeman gabe amaitzen baitu, edo atzematen badira, ez badute eragozten paragrafo honen azken lerrokadan eskatutako betetze-maila lortzea.

3. Para subvenciones de importe superior a 30.000 euros, las personas físicas y jurídicas, distintas de las entidades de derecho público, con ánimo de lucro sujetas a la Ley 3/2004, de 29 de diciembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales, deberán acreditar cumplir, en los términos dispuestos en este apartado, los plazos de pago que se establecen en la citada Ley para obtener la condición de beneficiario o entidad colaboradora.

La acreditación del nivel de cumplimiento establecido se realizará por los siguientes medios de prueba:

a) Las personas físicas y jurídicas que, de acuerdo con la normativa contable pueden presentar cuenta de pérdidas y ganancias abreviada, mediante certificación suscrita por la persona física o, en el caso de personas jurídicas, por el órgano de administración o equivalente, con poder de representación suficiente, en la que afirmen alcanzar el nivel de cumplimiento de los plazos de pago previstos en la citada Ley 3/2004, de 29 de diciembre.

b) Las personas jurídicas que, de acuerdo con la normativa contable no pueden presentar cuenta de pérdidas y ganancias abreviada, mediante:

1.º Certificación emitida por persona auditora inscrita en el Registro Oficial de Auditores de Cuentas que contenga una transcripción desglosada de la información en materia de pagos descrita en la memoria de las últimas cuentas anuales auditadas.

2.º En el caso de que no sea posible emitir el certificado al que se refiere el número anterior, «Informe de Procedimientos Acordados», elaborado por una persona auditora inscrita en el Registro Oficial de Auditores de Cuentas, que, en base a la revisión de una muestra representativa de las facturas pendientes de pago a proveedores de la sociedad a una fecha de referencia, concluya sin la detección de excepciones al cumplimiento de los plazos de pago de la Ley 3/2004, de 29 de diciembre, o en el caso de que se detectasen, éstas no impidan alcanzar el nivel de cumplimiento requerido en el último párrafo de este apartado.





Foru Arau honen ondorioetarako, paragrafo honetan eskatutako baldintza betetzat joko da abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako ordainketa-epenean betetze-maila enpresak sortu eta hazteari buruzko irailaren 28ko 18/2022 Legearen azken xedapenetako seigarrenean, d) letrako bigarren paragrafoan, aurreikusitako ehunekoaren berdina edo handiagoa denean.

4. Beste alde batetik, Dirulaguntzen Foru Arauko 13. artikulua arabera, ezarritako betebeharrak bete beharko ditu.

5. Dirulaguntza ordaindu aurretik, erakunde onuradunak egunean izan beharko ditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

6. Dirulaguntzaren erakunde onuradunek ez dute Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 42. artikuluan aurreikusitako debekurik, eta dirulaguntza honen xedea ez da sexuaren ziozko bereizkeria dakarren jardura edo ekintza bat.

7. Foru agindu honen ebazpenak esan nahi du onuradunek baimena ematen dutela Bizkaiko Foru Aldundiak zuzenean egiazta dezan onuradunek betetzen dituztela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

Hirugarrena.- Diruz lagundu daitekeen egitatea

1. Laguntzaren xedea da Bizkaiko ostalaritza-sektorerako online prestakuntza-programa bat garatzea.

2. Hori garatzeko entitate onuradunak, besteak beste, honako jardura hauek egingo ditu:

- E-learning plataforman harpidetzea, programa ostatzeko eta euskarri teknika emateko.

A los efectos de esta Norma Foral, se entenderá cumplido el requisito exigido en este apartado cuando el nivel de cumplimiento de los plazos de pago previstos en la Ley 3/2004, de 29 de diciembre, sea igual o superior al porcentaje previsto en la disposición final sexta, letra d), apartado segundo, de la Ley 18/2022, de 28 de septiembre, de creación y crecimiento de empresas.

4. Por otro lado, la entidad está sujeta al cumplimiento de la totalidad de las obligaciones establecidas en el artículo 13 de la citada Norma Foral de Subvenciones.

5. Con anterioridad al abono de la subvención, la entidad beneficiaria deberá encontrarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social.

6. La entidad beneficiaria de la subvención no está incurso en ninguna de las prohibiciones para concurrir previstas en el artículo 42 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la igualdad de mujeres y hombres, ni el objeto de esta subvención constituye una actividad o acción discriminatoria por razón de sexo.

7. La resolución de la presente orden foral conlleva la autorización de las entidades beneficiarias para la comprobación de manera directa por parte de la Diputación Foral de Bizkaia del cumplimiento de las obligaciones tributarias y con Seguridad Social.

Tercero.- Hecho subvencionable

1. El objeto de la ayuda es el desarrollo de un programa formativo online para el sector hostelero de Bizkaia.

2. En desarrollo de este, la entidad beneficiaria va a realizar, entre otras, las siguientes actuaciones:

- Suscripción en plataforma e-learning para alojamiento del programa y soporte técnico.





- Prestakuntza-ikastaroaren edukia garatzea: material didaktikoa idaztea eta itzultzea, podcastak egitea, bideoak, infografiak sortzea eta aurkezpen interaktiboak egitea.
- Instrukzio-diseinua: moduluak eta haien baliabideak formatu egokian antolatzea e-learning plataformaren barruan.
- Prestakuntza-ikastaroa testatzea: e-learning plataformaren erabilera eta kudeaketa abian jartzea eta prestatzea.
- Sustapen-kanpaina eta aurkezpen-ekitaldia.
- Desarrollo del contenido del curso formativo: redacción y traducción del material didáctico, elaboración de los podcast, vídeos, creación de las infografías y presentaciones interactivas.
- Diseño instruccional: organización de los diferentes módulos y sus recursos en formato adecuado dentro de la plataforma e-learning.
- Testeo del curso formativo: puesta en marcha y formación del uso y la gestión de la plataforma e-learning.
- Campaña de promoción y evento de presentación.

Laugarrena.- Zenbatekoa eta aurrekontu-kreditua

1. Dirulaguntzaren zenbatekoa laurogeita bederatzi mila zazpiehun eta bost euro eta hirurogeita hamaika zentimokoa da (89.705,71 €), eta hori da baimendutako aurrekontu-kredituaren guztizko zenbatekoa.
2. Kreditu hori, 2026ko ekitaldiko aurrekontuaren baitan, honako honetan zainpetuta dago: 0606/G/432110/44300, 2021/0051 proiektua, “2030eko turismo-estrategia”.
3. Zenbateko hori Bizkaiko Foru Aldundiaren Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa Sustatzeko Sailaren gehieneko ekarpena izango da, eta garatu beharreko jardueretarako aurreikusitako zenbatekoaren jardunetan egon daitekeen gehikuntzak inoiz ez du eragingo emandako zenbatekoa gehitzea.

Bosgarrena.- Gauzatzeko epea

Diruz lagundutako proiektuaren jarduerak 2026ko urtarrilaren 1etik 2026ko abenduaren 31ra bitartean hasi eta amaitu beharko dira, biak barne.

Cuarto.- Cuantía y crédito presupuestario

1. La cuantía de la subvención asciende a ochenta y nueve mil setecientos cinco euros con setenta y un céntimos (89.705,71 €), que es el importe total del crédito presupuestario autorizado.
2. Dicho crédito está asignado con cargo a la partida presupuestaria 0606/G/432110/44300, proyecto 2021/0051 Estrategia de turismo 2030, del presupuesto del ejercicio 2026.
3. Dicha cantidad tendrá el carácter de aportación máxima por parte del Departamento de Transportes, Movilidad y Turismo de la Diputación Foral de Bizkaia, sin que en ningún caso el posible aumento del importe previsto de las acciones a desarrollar implique aumento de la aportación concedida.

Quinto.- Plazo de ejecución

Las actividades del proyecto subvencionado deberán iniciarse y finalizarse en el periodo comprendido entre el 1 de enero de 2026 y el 31 de diciembre de 2026, ambos inclusive.





Seigarrena.- Dirulaguntzaren ordainketa eta bermeak

1. Bizkaiko Foru Aldundiak erakunde onuradunak dirulaguntza onartu eta berehala ordainduko du ekarpena. Hamar egun igarotzen badira beren-beregi adierazpenik egin gabe, dirulaguntza isilbidez onartu dela ulertuko da.
2. Ezin izango da dirulaguntza ordaindu erakunde onuradunak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez dituen bitartean edo itzulketa-ebazpen baten bidez zorduna den bitartean.
3. Erakunde onuradunari ez zaio bermerik eskatzen, ez baitago itzulketari ihes egiteko arriskurik, horretarako arrazoirik balego; izan ere, ez dago aurreko dirulaguntzetatik jaso gabeko itzulketarik.

Zazpigarrena.- Diruz lagun daitezkeen gastuak

1. Diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira Foru aginduan ezarritako gauzatzeko aldian egindakoak, diruz lagundutako jardueraren izaerari zalantzarik gabe erantzuten diotenak, jarduera egiteko behar-beharrezkoak direnak, aurkeztutako aurrekontuaren kontzeptuei erantzuten badiete. Behar bezala justifikatuta egon beharko dute, indarrean dagoen araudiaren arabera, eta foru agindu honetan ezarritako justifikazio-aldia amaitzen denean ordainduta.
2. BEZagatik dirulaguntza emango da erakunde onuradunak egiaztatzen badu ezin dezakeela berreskuratu edo konpentsaziorik jaso.
3. Diruz lagun daitezkeen gastuak ez dira inolaz ere izango:

- Banku-kontuetako interes zordunak.

Sexto.- Abono de la subvención y garantías

1. La Diputación Foral de Bizkaia hará efectiva la aportación una vez aceptada la ayuda por parte de la entidad beneficiaria. Transcurridos diez días tras la notificación sin haberse producido manifestación expresa se entenderá tácitamente aceptada.
2. No podrá realizarse el pago de la subvención en tanto la entidad beneficiaria no se halle al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social o sea deudora por resolución de procedencia de reintegro.
3. No se exigen garantías a la entidad beneficiaria ya que no existe riesgo de sustraerse al reintegro en caso de que se produjera causa para el mismo, y tampoco existen reintegros pendientes de anteriores subvenciones.

Séptimo.- Gastos subvencionables

1. Son gastos subvencionables los realizados durante el periodo de ejecución previsto en la orden foral que respondan de manera indubitada a la naturaleza de la actividad subvencionada, resulten estrictamente necesarios para su realización y respondan a los conceptos del presupuesto presentado. Deberán estar correctamente justificados de conformidad con la normativa en vigor y pagados a la fecha de finalización del periodo de justificación establecido en esta orden foral.
2. El IVA será subvencionable cuando la entidad beneficiaria lo abone efectivamente y acredite no ser susceptible de recuperación o compensación.
3. En ningún caso serán gastos subvencionables:

- Los intereses deudores de las cuentas bancarias.





- Interesak, gainordainak eta administrazio-zehapenak nahiz zehapen penalak.
- Prozedura judizialen gastuak.
- Berreskuratu edo konpentsatu daitezkeen zeharkako zergak; ezta errentaren gaineko zerga pertsonalak ere.

4. Onuradunak dirulaguntzaren xede den jarduerari egotzi behar dizkio zeharkako kostuak, hain zuzen ere, onartutako kontabilitateko arauekin eta printzipioekin bat etorritik, kontuan edukita horretarako ezinbestekoa dela kostuok jarduera egin den aldikoak izatea.

5. Dirulaguntzaren onuraduna enpresa bat denean, merkataritza-eragiketetan diruz lagundu daitezkeen gastuak aplikatu beharreko araudi sektorialean aurreikusitako ordainketa-epeetan ordaindu beharko dira, edo, bestela, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako epeetan.

Zortzigarrena.- Norberaren ekimenez dirulaguntza itzultzea

1. Dirulaguntzei buruzko Erregelamenduaren 76. artikuluan ezarritakoaren arabera onuradunak dirulaguntza hau bere kabuz itzultzeko aukera izango du, Administrazioak aldeztu aurretik errekerimendurik egin gabe, Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa Sustatzeko Sailari aldeztu aurretik jakinarazita.

2. Borondatezko itzulketa egiten denean, Administrazioak dagozkion berandutze-interesak kalkulatu dituen 5/ 2005 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritakoaren arabera eta onuradunak behin betiko itzulketa benetan egin duen unera arte.

- Intereses, recargos y sanciones administrativas y penales.
- Los gastos de procedimientos judiciales.
- Los impuestos indirectos cuando sean susceptibles de recuperación o compensación ni los impuestos personales sobre la renta.

4. Los costes indirectos serán imputados por la entidad beneficiaria a la actividad subvencionada en la parte que razonablemente corresponda de acuerdo a los principios y normas de contabilidad generalmente admitidas y, en todo caso, en la medida en que tales costes correspondan al período en que efectivamente se haya realizado la actividad.

5. Cuando el beneficiario de la subvención sea una empresa, los gastos subvencionables en los que haya incurrido en sus operaciones comerciales deberán haber sido abonados en los plazos de pago previstos en la normativa sectorial que le sea de aplicación o, en su defecto, en los establecidos en la Ley 3/2004, de 29 de diciembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales.

Octavo.- Devolución de la subvención por propia iniciativa

1. Según lo establecido en el artículo 76 del Reglamento de Subvenciones, la entidad beneficiaria tendrá la posibilidad de proceder a la devolución voluntaria de la presente subvención por propia iniciativa sin el previo requerimiento de la Administración, previa comunicación al Departamento de Transportes, Movilidad y Turismo.

2. Cuando se produzca la devolución voluntaria la Administración calculará los intereses de demora, de acuerdo con lo previsto en el artículo 34 de la Norma Foral 5/2005 y hasta el momento en el que se produjo la devolución definitiva por parte de la entidad beneficiaria.





3. Dirulaguntza itzultzeko, bidaliko zaien ordainketa-gutuna erabili beharko da, Bizkaiko Foru Aldundiaren eredu ofizialaren arabera egindakoa.

Bederatzigarrena.- Erakunde onuradunaren beste betebeharrak

1. Bizkaiko Foru Aldundiaren, haren erakunde autonomoen eta foru-sektore publikoaren jardueraren eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dituen Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuaren 13. artikuluan xedatutakoaren arabera, dirulaguntza honen xede diren jardueren guztietan herritarrek Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozein erabiltzeko duten eskubidea bermatuko da, eta, herritarren artean zabalkunde zabala eragiten duten ahozko eta idatzizko komunikazio guztietan (propaganda, errotulazioa, kartelak, komunikabideak, etab.) euskara erabiltzeko betebeharrak beteko da, eta dirulaguntzaren xede diren jardueretan parte hartzen duten edo interesa duten pertsonekin izaten diren ahozko eta idatzizko komunikazio guztietan euskara erabiltzekoa ere bai.

2. Gainera, entitate onuradunak kontuan izan beharko du genero-ikuspegia proiektua gauzatzerakoan, eta nahitaez bete beharko ditu Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 46. artikuluan honako hauen inguruan ezarritako eginbideak: lan-baldintzen zehaztapena, emakumeen eta gizonen tratamendua eta balorazioa, eta berdintasunaren balioak nola sustatzen dituen bere jardueran. Bete beharko ditu, baita ere, plantilla jakinetako entitate onuradunentzat aurreikusitako eginbideak.

3. La devolución de la subvención se deberá realizar mediante la correspondiente carta de pago, que les será remitida según modelo oficial de la Diputación Foral de Bizkaia.

Noveno.- Otras obligaciones de la entidad beneficiaria

